

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**LASARTE-ORIAKO UDALA**

*Iragarpena*

Udalbatzarrak 2018ko ekainaren 12an hartutako erabakia-  
ren bidez, 2017. eta 2018. urteetan Lasarte-Oriako udalerrian  
etxebizitzaren eraikinetan igogailuak instalatzeko edo irisgarritasuna  
hobetuko duten obrak egiteko diru-laguntzen oinarri arau-  
tzailak onestea erabaki da. Era berean, ekainaren 26ko alkate-  
dekretuaren bidez, oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argi-  
taratzea xedatzen da eta eskaerak aurkezteko epea zehazten  
da. Honekin batera argitaratzen dira aipatutako oinarriak eta  
haien eranskinak, eta interesatuei jakinarazten zaie dagozkien  
eskaerak, beharrezko dokumentazioarekin batera, iragarpen  
hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera  
aurkeztu ahalko dituztela, hori egin ahal izateko azken eguna oi-  
narrietan bertan adierazitakoa izango delarik.

Ondorio horietarako, jakinarazten da aurtengo abuztua ba-  
ilogabe deklaratu izan dela.

Lasarte-Oria, 2018ko ekainaren 26a.—Alkatea. (4966)

*Lasarte-Oriako udalerriko etxebizitzaren eraikinetan  
igogailuak instalatzeko edo irisgarritasuna hobetuko  
duten obrak egiteko diru-laguntzen oinarri arautzai-  
leak.*

Kontuan izanik etxebizitzaren errehabilitazioaren arloan beha-  
rezkoa dela oztupo arkitektonikoak ezabatzea eta eraikinen  
irisgarritasun-kondizioak hobetzea sustatuko duen politika ak-  
tibo bat mantentzea, komenigarri da etxebizitzaren eraikinetan  
igogailuak instalatzeko diru-laguntza berezi bat sortzea igogailu-  
rik ez duten eraikinetarako, hartara mugikortasun handiagoa  
lortuko baitute eraikin horietako erabiltzaileek, batik bat adi-  
neko pertsonak edo mugikortasun murriztua dutenak, eta dui-  
nagoak izango baitira udalerriko honetako herritar askoren bizi-  
baldintzak.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Xedea.*

Oinarri hauen helburua Lasarte-Orian kokatuta dauden eta  
igogailurik ez duten etxebizitzaren eraikinetan igogailuak instala-  
tzeko Lasarte-Oriako Udalak ematen dituen diru-laguntzak arau-  
tzea da, bai halaber arrapalak, goratzeko plataformak edo beste  
elementu batzuk instalatzeko obrerarako eta irisgarritasuna ho-  
betzeko beste edozein obrerarako ematen dituenak arautzea,  
horien artean daudelarik ezkaratzaren eta igogailuaren nahiz  
eraikin horietarako sarbideen artean dagoen desnibela gaindi-  
tzeko balio duten obrak.

**AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA**

*Anuncio*

Por Acuerdo Plenario de fecha 12 de junio de 2018 se ha  
suelto aprobar las bases reguladoras de las ayudas económicas  
para la instalación de ascensores o realización de obras de me-  
jora de la Accesibilidad en inmuebles residenciales en el tér-  
mino municipal de Lasarte-Oria durante los años 2017 y 2018.  
Asimismo, por Decreto de Alcaldía de 26 de junio se dispone su  
publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y se concreta el  
plazo de presentación de solicitudes. Adjunto se publican di-  
chas bases y sus anexos, poniendo en conocimiento de las per-  
sonas interesadas que las correspondientes solicitudes, junto  
con la documentación requerida, podrá presentarse a partir de  
la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gi-  
puzkoa, siendo el último día para poder hacerlo el indicado en  
las mismas bases.

A estos efectos, se hace saber que el mes de agosto del año  
en curso ha sido declarado inhábil.

Lasarte-Oria, a 26 de junio de 2018.—El alcalde. (4966)

*Bases reguladoras de las ayudas económicas para la  
instalación de ascensores o realización de obras de  
mejora de la accesibilidad en inmuebles residencia-  
les en el término municipal de Lasarte-Oria.*

La necesidad de mantener una política activa en materia de  
rehabilitación de vivienda que fomente la eliminación de barre-  
ras arquitectónicas y la mejora de las condiciones de accesibili-  
dad de los edificios, aconseja la creación de una ayuda econó-  
mica específica para la instalación de ascensores en los edifi-  
cios residenciales que carezcan de ellos, lo que permitirá lograr  
una mayor movilidad de los usuarios de estos inmuebles, funda-  
mentalmente de las personas mayores o que adolezcan de mo-  
vilidad reducida, y dignificar las condiciones de vida de un gran  
número de ciudadanos de este municipio.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto.*

Es objeto de las presentes Bases la regulación de las sub-  
venciones que por parte del Ayuntamiento de Lasarte-Oria se  
concede para la instalación de ascensores, en inmuebles resi-  
denciales ubicados en Lasarte-Oria que carezcan del mismo,  
así como para las obras de instalación de rampas, plataformas  
elevadoras, instalación de elementos y cualquier otra obra de  
accesibilidad entre las que se incluyan las que sirvan para sal-  
var el desnivel existente entre el portal y el ascensor, y los acce-  
sos a los mismos inmuebles.

## II. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 2. artikulua. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, obraren amaierako exekuzioa deialdian finkatutako epearen barruan egin beharko da, udalaren aurrekontuan horretarako kreditua egon behar du eta, deialdia arautzen duten Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak betetzeaz gain, horretarako ezarritako epearen barruan eskatu beharko da dagokion laguntza.

#### 3. artikulua. Onuradunak.

Diru-laguntza eskatu ahalko dute jarduketa hori egin nahi zaion eraikinaren jabe direnek –jabetza horizontalaren erregimenean–, baita jabeen komunitateek ere.

#### 4. artikulua. Erregimen aplikagarria.

Laguntzak deialdi irekiaren bidez tramitatuko dira, norgehiagokako erregimenean.

#### 5. artikulua. Eremua.

##### 5.1. Igogailuen instalazioari dagokionez:

Hurrengo baldintza hauek betetzen dituzten etxebizitzetako eraikinetan egiten diren interbentzioetarako eman ahalko dira diru-laguntzak:

a) Eraikinen altuera: Diru-laguntzak jaso ahal izateko, etxebizitzetako eraikinek, oro har, beheko solairua gehi beste solairu bat (BS+1) baino gehiagoko altuera izan beharko dute.

b) Eraikinen antzinatasuna: Diru-laguntza jasoko badute, etxebizitzetako eraikinek 10 urte baino zaharragoak izan beharko dute.

Eraikinek ez dute baldintza horiek bete beharrik izango baldin eta eraikinean mugikortasun murriztua duen pertsonarik bizi bada, oinez ibiltzeko, eskaileretan igotzeko edo barrera arkitektonikoak gainditzeko ahalmen-urritze iraunkorra duena, protesi edo gurpil-aulkirik erabili behar izan nahiz ez izan, betiere mugikortasuna etxebizitza hori okupatu ondoren murriztu zaiolarik, edo hirurogeita hamar (70) urte baino gehiago dituen pertsonarik bizi bada.

Nolanahi ere, beharrezkoa izango da oinarri hauetan jasotako gainerako baldintzak betetzea.

##### 5.2. Etxebizitzetako eraikinetan irisgarritasuna hobetzeko gainerako jarduketek dagokienez:

Jarduketa guztiek jaso ahalko dute diru-laguntza, betiere oinarri hauetan jasotako baldintzetan, baina horretarako nahitaez bete beharko dituzte oinarrietan jasotako eskakizunak.

#### 6. artikulua. Baztertzekoak.

Diru-laguntza horietatik kanpo geratzen dira igogailuak aldatzeko obrak; familia bakarreko edo bi familiako etxe bakartuetan nahiz ilarakoetan igogailuak instalatzekoak eta, oro har, promotoreek eta kontratistek berek zimendu berriko eraikinetan igogailuak instalatzeko egindako jarduketak.

Era berean, laguntzetatik kanpo geratuko dira jarduera komertzial, industrial, ekonomiko edo profesioaletara soilik destinatutako eraikin edo lokaletan irisgarritasuna hobetzeko egiten diren obrak.

#### 7. artikulua. Baldintzak.

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzen onuradun izateko, Udaltzatarrak onetsitako Diru-laguntzak Emateko Ordenantza Arautzailean (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN 75. zk., 2017ko apirilaren 20koa) adierazitako baldintzak bete beharko ditu eskatzaileak.

## CAPÍTULO II

### DISPOSICIONES GENERALES

#### Artículo 2. Actuaciones objeto de subvención.

Podrán optar a la subvención, aquellas actuaciones cuya ejecución final de la obra se hayan producido en el plazo que se fije en la convocatoria, por contar con el correspondiente crédito en el presupuesto municipal, y que reuniendo los requisitos previstos en estas Bases reguladoras soliciten la correspondiente ayuda en el plazo fijado para ello.

#### Artículo 3. Beneficiarios/as.

Podrán solicitar subvención los propietarios, incluidas las Comunidades de propietarios, de edificios residenciales en régimen de propiedad horizontal del inmueble sobre el que se propone la actuación.

#### Artículo 4. Régimen aplicable.

Las ayudas se tramitarán mediante convocatoria abierta en régimen de libre concurrencia.

#### Artículo 5. Ámbito.

##### 5.1. En lo que respecta a la instalación de ascensores:

Serán subvencionables las intervenciones que se realicen en edificios residenciales que reúnan las siguientes condiciones:

a) Altura de los inmuebles: Las alturas de los inmuebles residenciales objeto de ayudas deberán ser superiores, con carácter general, a planta baja más un piso (PB+1).

b) Antigüedad de los inmuebles: Con carácter general la antigüedad de los edificios residenciales objeto de ayuda deberá ser superior a 10 años.

No se exigirán ninguna de esas condiciones para aquellos inmuebles residenciales en que habiten personas de movilidad reducida, con disminución permanente para andar, subir escaleras o salvar barreras arquitectónicas, se precise o no el uso de prótesis o de sillas de ruedas, a quienes les haya sucedido esta situación con posterioridad a la ocupación de la vivienda o personas mayores de setenta años (70 años).

En cualquier caso será necesario cumplir con el resto de los requisitos, recogidos en estas bases.

##### 5.2. En lo que respecta al resto de actuaciones de mejora de la accesibilidad en edificios residenciales:

Todas las actuaciones serán susceptibles de subvención, en las condiciones recogidas en estas bases, y con el obligado cumplimiento de los requisitos recogidos en ellas.

#### Artículo 6. Exclusiones.

Quedan excluidos de estas ayudas las obras de sustitución de ascensores, la instalación de ascensores en edificios de tipología de villa unifamiliar o bifamiliar, aislada o adosada y, en general, las actuaciones de instalación de ascensores en edificios de nueva planta realizadas por los propios promotores y contratistas.

Así mismo quedan excluidas aquellas obras de mejora de la accesibilidad a edificios o locales destinados exclusivamente a actividades comerciales, industriales, económicas o profesionales.

#### Artículo 7. Requisitos.

Para ser beneficiario de las subvenciones reguladas en las presentes bases, el solicitante deberá cumplir las condiciones señaladas en la Ordenanza reguladora de la Concesión de Subvenciones aprobadas por el Pleno de la Corporación (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 75, de 20 de abril de 2017).

**8. artikulua. Diru laguntzak emateko prozedura.**

1. Diru-laguntzako zuzeneko prozeduraren bidez emango dira. Lasarte-Oriako Udalaren Aurrekontu Orokorrean horretarako ezarritako gastu-baimen eta aurrekontu-kredituen mende egongo da laguntza horiek ematea, betiere aurrekontuetan dauden baliabide-aukeren mugekin.

2. Aurrekontuen ekitaldi bati dagozkion eta izendatutako kreditua ahitu delako diru-laguntzarik lortu ez duten eskaera guztiak indarrrik gabe geratuko dira, eta inolaz ere ezingo izan etorkizuneko ekitaldietan xedatzen diren kredituen onuradun, non eta, lege-xedapenekin bat etorritz, organo eskumendunak kontrakoa ebazten ez duen.

**9. artikulua. Aurkezteko modua, epea eta dokumentazioa.**

1. Eskaera egiteko eredu ofiziala betez aurkeztu beharko dira eskaerak, eskaera-orri horretako laukitxo guztiak beteta.

2. Eskaerak deialdian aurreikusitako epean aurkeztu beharko dira, eta eskaerarekin batera beste agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Jarduketa sustatzen duenaren edo haren ordezkariaren DNIaren eta IFZaren kopia konpultsatua.

b) Jabeen Komunitatearen Batzarreko aktaren edo akten fotokopiak, non agertuko den komunitateko lehendakariaren izendapena edo administrazioaren aurrean haren ordezkaria izango denaren izendapena, eta igogailua instalatzea onesten duen erabakiaren kopia edo xehetasun horiei buruz komunitateko idazkariak edo administratzaileak egindako ziurtagiria.

c) Deklarazio bat adieraziz ez duela diru-laguntza publikoaren onuradun izateko inolako debekurik, Lasarte-Oriako Udalaren Diru-laguntzak Emateko Ordenantza Arautzaileak 9. artikuluan ezartzen dituen debeku-kausen arabera.

d) Erantzukizuneko deklarazio espresua:  
– Beste administrazio publiko baten edo entitate baten diru-laguntzarik eskatu edo jaso ez duela dioena.  
– Eskatu baldin badu, oraindik ebazpenik jaso ez duela dioena.

Diru-laguntzaren bat eskatu baldin badu, eskaera hori egiaztatzen duten agiriak eta, ebatzi baldin badute, ebazpenaren agiria.

e) Aplikatzekoa izanez gero, eraikineko etxebizitzaren jabeen zerrenda, eraikinean bizi direlarik eta han erroldatuta daudelarik eskatutako betebeharretatik salbuesteko arrazoi izan daitezkeen pertsonen buruzkoa.

f) Errentamenduaren edo jabetza bertikalaren erregimenean dauden eraikinen jabeen kasuan, betebeharrak fiskaletan eta Segurantzaren Sozialarekikoetan egunean egotearen akreditazioa (sustatzaile eta diru-laguntzen onuradun diren jabeen komunitateek izan ezik).

g) Kasua hala bada, jabetza-eskrituren fotokopiak edo Jabetzaren Erregistroaren ziurtagiriak edo nota sinpleak, edota ebazpen judizial irmoak, testamentuak edo eraikinaren edo etxebizitzaren titulartasuna egiaztatzen duten beste agiri publiko batzuk.

h) Teknikari elkargokide baten esku-hartzea eskatzen duten obrak izanez gero, obraren amaierako ziurtagiria aurkeztu beharko da, dagokion elkargo profesionalak behar bezala onetsia, edo, kasua hala bada, dagokion faktura.

i) Obraren exekuzioari dagokion lizentzia urbanistikoa.

**Artículo 8. Procedimiento de concesión.**

1. El procedimiento de concesión de las subvenciones será la concesión directa. Su concesión estará condicionada a las correspondientes autorizaciones del gasto y a los créditos presupuestarios establecidos al efecto en el Presupuesto General del Ayuntamiento de Lasarte-Oria y con el límite de sus respectivas disponibilidades presupuestarias.

2. Todas aquellas solicitudes correspondientes a un ejercicio presupuestario que no hayan obtenido subvención por agotamiento del crédito consignado, quedarán sin efecto y en ningún caso podrán ser beneficiarias de los créditos que se dispongan en ejercicios futuros, salvo que, de acuerdo con las disposiciones legales, por el órgano competente se resuelva lo contrario.

**Artículo 9. Forma, plazo y documentación a presentar.**

1. Las solicitudes deberán formalizarse cumplimentando el modelo de solicitud oficial cumplimentando todas las casillas de la mencionada solicitud.

2. Las solicitudes se deberán presentar en el plazo previsto en la convocatoria, y se deberá acompañar de la siguiente documentación:

a) Fotocopia compulsada del DNI y NIF del promotor de la actuación o de su representante.

b) Fotocopias del acta o de las actas de la Junta de Comunidad de Propietarios, en la que conste el nombramiento del Presidente de la Comunidad o designación de representante de ésta ante la Administración y del acuerdo aprobatorio de la instalación del ascensor o certificado del Secretario o Administrador de la Comunidad referente a dichos extremos.

c) Declaración de no estar incurso en ninguna de las causas de prohibición para obtener la condición de beneficiario de subvención pública, establecida en el artículo 9 de la Ordenanza Reguladora de Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

d) Declaración expresa y responsable:  
– De no haber solicitado o percibido subvención de otra administración pública o entidad.  
– De si se ha solicitado y todavía no se ha recibido resolución.

En el caso de haberse solicitado subvención, documentación acreditativa de la solicitud, y su resolución, de haber sido resuelta.

e) Si fuera de aplicación, relación de propietarios de las viviendas del edificio relativa a las personas que residiendo y estando empadronadas en el inmueble pudieran ser causa de excepción a requisitos exigidos.

f) En caso de propietarios de edificios en régimen de arrendamiento o propiedad vertical, acreditación de estar al corriente de sus obligaciones fiscales y frente a la Seguridad Social (salvo las comunidades de propietarios en calidad de promotores y beneficiarios de las ayudas).

g) En su caso, fotocopias de las escrituras de propiedad o certificados o notas simples del Registro de la Propiedad, o resoluciones judiciales firmes, testamentos u otros documentos públicos que acrediten la titularidad del edificio o de las viviendas del mismo.

h) En el supuesto de obras que requieran la intervención de técnico colegiado se deberá presentar certificado final de obra debidamente visado por el Colegio Profesional correspondiente, o en su caso la factura correspondiente.

i) Licencia urbanística correspondiente a la ejecución de la obra.

j) Iggailuei eta antzekoei dagokienez:

– Aparatu Jasogailuen Erregistroan instalazio horren inskripzioa egin izanaren egiaztagiria, horrela egitea beharrezkotzat eskatzen denean.

– Industriaren arloan eskumena duen sailak sinatutako instalazio-buletina, horrela egitea beharrezkotzat eskatzen denean.

k) Obrako titularraren banku-kontuaren zenbakia (20 digitu), eman litekeen diru-laguntzaren pagamendua egiteko.

Bizilekuaren baldintza Udalak ofizioz egiaztatuko du.

Dena dela, aurkeztutako dokumentazioaz gain, Lasarte-Oriako Udalak beharrezko jotzen duen informazio osagarria eskatu ahalko die pertsona eskatzaileei, aurkeztutako jarduera edo programa hobeto baloratzeko xedez.

3. Eskaerak Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, edo horretarako legez ezarritako beste edozein lekutan.

4. Laguntza emango den ebazteko eta notifikatzeko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita. Ezarritako gehieneko epea amaituta ebazpenik eman eta notifikatu ez bada, eskaera egin duten pertsonen edo jabe-komunitateen beren eskaerak administrazioaren isiltasunagatik ezetsita geratu direla ulertu ahalko dute, baina interesatuek bidezkoa den errekurtsu administratiboa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izateko bakarrik, alde batera utzita Administrazioak ebazpena emateko obligazioa duela, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunitatearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**10. artikulua. Aurrekontuetako kreditua eta diru-laguntza zenbatekoa.**

1. Ekitaldi bakoitzerako aurrekontuetako kreditua ekitaldi horietako bakoitzean onesten dena izango da, eta dagokion deialdian zehaztuko da haren zenbatekoa.

2. Laguntza ekonomikoa, gehienez ere, obraren benetako kostuaren (BEZa sartu gabe) % 20ra arteko diru-laguntza bat izango da, ez itzultzekotan emana.

Obra bakoitzeko gehieneko zenbatekoa urteko deialdian edo aurrekontuen ekitaldi bakoitzeko Aurrekontua Gauzatzeko Oinarrietan finkatuko da, jarduketa-motaren arabera (igogailua, arrapala, etab).

Ondorio horietarako, obraren benetako kostutzat hartuko da kopuru hauen batura: aparatu jasogailuaren prezio osoa, kasua hala bada, gehi instalazio-obrak burutzeko kontratuaren prezio osoa, fakultatiboan ordainsariak, kudeaketa-gastuak eta jarduketa horien ondorioz ordaindutako tributuak.

3. Diru-laguntza bakoitzaren kopurua zenbateko jakin bat izango da.

**11. artikulua. Diru-laguntza banatzeko irizpideak.**

Diru-laguntzen eskaeren kopurua kontuan izanik, eta aurreko irizpide horiek aplikatuz, diru-laguntza jaso dezaketen gehieneko zenbatekoen batura Udalaren Aurrekontu Orokorrean horretarako aurreikusitako zenbateko orokorra baino handiagoa izanez gero, eskatutako betebeharrak betetzen dituzten eskaera guztien artean proportzionaltasunez banatuko da zenbateko hori.

**12. artikulua. Laguntzak kudeatuko dituen organoa.**

Lasarte-Oriako Udalaren Hirigintza Departamentuaren arduradunak diru-laguntzen lerro hau kudeatzeko jarduketak egitea, eta hango zerbitzu teknikoek egingo dute laguntza-eskaeren inguruko analisi teknikoa eta balorazioa. Halaber, hark proposatuko dio Alkatetzari egoki diren laguntzak ematea.

j) En lo que respecta a ascensores y similares:

– Justificante de haber realizado la inscripción de la instalación del Registro de Aparatos Elevadores, en el caso de estar así exigido.

– Boletín de instalación firmado por la conserjería competente en materia de Industria, en el caso de estar así exigido.

k) Número de cuenta bancaria (20 dígitos) del titular de la obra, a fin de que se haga efectivo el pago de la subvención que pudiera concederse.

El requisito de la residencia se verificará de oficio por el Ayuntamiento.

En todo caso, además de la documentación presentada, el Ayuntamiento de Lasarte-Oria podrá requerir a las personas solicitantes cuanta información complementaria estime necesaria en orden a la valoración de la actividad o programa presentado.

3. Las solicitudes se deberán presentar en el Registro General del Ayuntamiento o en cualquier lugar legalmente establecido al efecto.

4. El plazo para resolver y notificar la concesión de la ayuda será de tres meses, contados desde la fecha de presentación de la solicitud. Finalizado el plazo máximo establecido sin que se dicte y notifique la resolución, las personas o comunidades de personas propietarias solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes por silencio administrativo, a los solos efectos de permitir a los interesados la interposición del recurso administrativo o contencioso-administrativo que resulte procedente, y sin perjuicio de la obligación de la Administración de resolver, conforme a lo dispuesto en el artículo 21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**Artículo 10. Crédito presupuestario y cuantía de la subvención.**

1. El crédito presupuestario para cada ejercicio será el que se apruebe en cada uno de esos ejercicios, y se cuantificará en la convocatoria correspondiente.

2. La ayuda económica consistirá, como máximo, en una subvención a fondo perdido de hasta el 20 % del costo real de la obra, IVA no incluido.

La cuantía máxima por obra quedará fijada en la convocatoria anual o en las Bases de ejecución del Presupuesto de cada ejercicio presupuestario, en función del tipo de actuación (ascensor, rampa, etc.).

A estos efectos, se considera coste real de la obra el determinado por la suma del precio total de, en su caso, el aparato elevador más el precio total del contrato de ejecución de las obras de instalación, los honorarios facultativos y de gestión y los tributos satisfechos por razón de las actuaciones.

3. El importe de cada subvención será un importe cierto.

**Artículo 11. Criterios reparto de la subvención.**

Si se diera la circunstancia de que el número de solicitudes de subvención fuera tal que, en aplicación de los criterios anteriores, la suma de las cuantías máximas subvencionables rebasara la cantidad global prevista en el Presupuesto General del Ayuntamiento, dicha cantidad se distribuirá de forma proporcional entre todas las solicitudes que cumplan los requisitos exigidos.

**Artículo 12. Órgano de gestión de las ayudas.**

Corresponde al Departamento de Urbanismo del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, la realización de las tareas de gestión de la presente línea subvencional, y serán sus servicios técnicos los que realizarán el análisis técnico y valoración de las solicitudes de ayudas, y propondrá a la Alcaldía la concesión de las ayudas que correspondan.

**13. artikulua. Esleitzeko eskumena duen organoa.**

Iragarritako laguntzak esleitzeko eskumena Lasarte-Oriako Udaleko alkatearena da.

**14. artikulua. Diru-laguntzaren erabilera justifikatzea.**

Diru-laguntzaren erabilerari buruzko justifikazioa diru-laguntzaren zenbatekoaren arabera eta Diru-laguntzen Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorri egingo da, eta haietan adierazitako sinestamenduak onartuko dira baliozko agiri justifikagarritzat.

Justifikazioa egiteko, justifikazio-eredu ofiziala erabiliko da, eta laukitxo guztiak bete beharko dira.

**15. artikulua. Diru-laguntzaren bateragarritasuna.**

Deialdi honen xede diren diru-laguntzak beste diru-laguntza batzuekin bateragarriak izango dira, betiere emandako zenbateko osoak obraren benetako kostu errealearen % 100 gainditzen ez bada, eta, hori gertatzen bada, dagokion muga maximo-raino murriztuko da diru-laguntza.

**16. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.**

Hirigintzako Departamentuak proposaturik eta Alkatearen Ebazpenaren bidez diru-laguntza ematea ebatzi denean egingo da haren pagamendua.

**XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**2017KO ETA 2018KO JARDUKETETARAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA**

*Lehen xedapen iragankorra. 2017. eta 2018. urteetako ekitaldietan egindako jarduketetarako deialdia.*

Diru-laguntzen deialdia erabakitzeo Alkateak duen eskumenari utzi gabe, eta haren onespenerekin, Lasarte-Oriako udalerrian etxebizitzaren eraikinetan igogailuak jartzeko edo irisgarritasuna hobetuko duten obrak egiteko diru-laguntzen deialdia egiten da 2017ko eta 2018ko ekitaldietarako.

2017. urteari dagokionez, oinarrien arabera haietan eskatutako baldintzak betetzen dituztelako diru-laguntza jaso dezaketen jarduketetarako eskatu ahaliko dira diru-laguntzak, betiere haien exekuzioa 2017. urtean amaitu bada.

2018. urteari dagokionez, oinarrien arabera haietan eskatutako baldintzak betetzen dituztelako diru-laguntza jaso dezaketen jarduketetarako eskatu ahaliko dira diru-laguntzak, betiere haien exekuzioa 2018ko urriaren 31 baino lehen amaitzen bada.

*Bigarren xedapen iragankorra. Eskaerak aurkezteko epea.*

A) Oinarri hauen arabera diru-laguntza jaso dezaketen eta 2017ko ekitaldian amaitu diren obretarako eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik kontatzen hasita.

B) Oinarri hauen arabera diru-laguntza jaso dezaketen eta 2018ko urriaren 31 baino lehen amaitzen diren obretarako, berri:

a) Deialdi hau argitaratzen den egunean amaituta badaude, aurkezteko epea hilabetekoa izango da halaber, oinarriak indarrean sartzen direnetik kontatzen hasita.

b) Oinarri hauek indarrean sartu ondoren amaitzen bada, 2018ko azaroaren 20a baino lehen.

*Hirugarren xedapen iragankorra. Aurrekontuetako dotazioa.*

A) Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak Lasarte-Oriako Udalaren aurrekontu orokorretako 1 0802.78001.15220 aplikazioaren kargura ordainduko dira.

**Artículo 13. Órgano competente para la adjudicación.**

El órgano competente para la adjudicación de las ayudas que se convocan es la Alcaldía del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

**Artículo 14. Justificación de la utilización de la subvención.**

La justificación de la utilización de la subvención se realizará conforme se establece en las Bases Generales de Subvenciones en razón a la cuantía de la subvención, admitiéndose como documentos justificativos válidos los señalados en la misma.

Para la justificación se empleará el modelo de justificación oficial cumplimentando todas las casillas.

**Artículo 15. Compatibilidad de la subvención.**

Las subvenciones objeto de esta convocatoria serán compatibles con otras subvenciones, siempre que el importe total concedido no supere el 100 % del coste real efectivo de la obra, reduciéndose la subvención, si esto ocurriese, hasta el límite máximo correspondiente.

**Artículo 16. Abono de la subvención.**

La ayuda se hará efectiva, una vez se haya resuelto su concesión, a propuesta del Departamento de Urbanismo y por Resolución de la Alcaldía.

**DISPOSICIONES TRANSITORIAS**

**CONVOCATORIA DE AYUDAS ACTUACIONES 2017 Y 2018**

*Disposición transitoria primera. Convocatoria para las actuaciones ejecutadas en los ejercicios de los años 2017 y 2018.*

Sin perjuicio de la competencia de la Alcaldía para acordar la convocatoria de las subvenciones, y con su anuencia, se procede a convocar ayudas económicas para la instalación de ascensores o realización de obras de mejora de la accesibilidad en inmuebles residenciales en el término municipal de Lasarte-Oria para los ejercicios 2017 y 2018.

En lo que respecta a 2017, podrán acceder a las ayudas todas aquellas actuaciones que conforme a las bases sean susceptibles de ser subvencionadas por cumplir con los requisitos exigidos en las mismas y su ejecución haya finalizado en el año 2017.

En lo que respecta a 2018, podrán acceder a las ayudas todas aquellas actuaciones que conforme a las bases sean susceptibles de ser subvencionadas por cumplir con los requisitos exigidos en las mismas y su ejecución finalice antes del 31 de octubre de 2018.

*Disposición transitoria segunda. Plazo presentación instancias.*

A) Para aquellas obras susceptibles de subvención conforme a estas bases finalizadas en el ejercicio de 2017, el plazo de presentación de solicitudes será de un mes contado desde la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de esta convocatoria.

B) Para aquellas obras susceptibles de subvención conforme a estas bases que finalicen antes de 31 octubre del año 2018:

a) Si están finalizadas a la fecha de publicación de esta convocatoria, el plazo de presentación será también de un mes desde la entrada en vigor de las mismas.

b) Si finalizan con posterioridad a la entrada en vigor de estas bases, antes del día 20 de noviembre de 2018.

*Disposición Transitoria tercera. Dotación Presupuestaria.*

A) Las subvenciones previstas en esta convocatoria se harán efectivas con cargo a la aplicación presupuestaria 1 0802.78001.15220, de los presupuestos generales del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

B) Deialdi honetara xedatutako dotazio ekonomikoaren zenbateko globala urteko izaerarekin izango da eta honela banatuko da:

2018ko aurrekontua: 200.000 euro, honela desglosatuta:

\* Obraren amaiera 2017. urtean duten espedienteak: 100.000 euro.

\* Obraren amaiera 2018. urtean duten espedienteak: 100.000 euro.

*Laugarren xedapen iragankorra. Jarduketa bakoitzeko diru-laguntzaren gehienezko muga.*

Bi ekitaldi hauetarako diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa hauxe izango da:

A) Igogailuak: Igogailuagatik gehienez emango den zenbatekoa ezingo da 10.818,00 € baino gehiago izan.

B) Arrapalak edo antzekoak: Arrapala eta antzekoengatik gehienez emango den zenbatekoa ezingo da 1.803 € baino gehiago izan.

C) Bestelako jarduketak: Gainerakoetan, gehienezko zenbatekoa 3.606,00 € litzateke.

*Xedapen indargabetzailea.*

Indargabetuta geratzen dira hurrengo xedapen hauek:

a) Lasarte-Oriako udalerriko etxebizitzaren eraikinetan igogailuak instalatzeko diru-laguntzak erregulatzeko ordenantza, Udal honen osoko batzarrak 2007ko uztailaren 12an egindako ohiz kanpoko bilkuran onetsia eta urte bereko uztailaren 26ko 147. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua.

b) Udaleko maila bereko arau eta xedapen guztiak, oinarri hauetan xedatutakoarekin kontraesanean daudenean edo aurka doazenean.

*Amaierako xedapena. Lehena.*

Hala dagokionean urtean urteko deialdia onesteko eta argitaratzeko betebeharrak alde batera utzirik, oinarri espezifiko hauek indarrean jarraituko dute organo eskumendunak aldatzen ez dituen bitartean.

*Amaierako xedapena. Bigarrena.*

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztian, aplikakizun izango dira:

a) Udalbatzarrak onetsitako Diru-laguntzak Emateko Ordenantza Araztezailea (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN 75. zk., 2017ko apirilaren 20koa).

b) Azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorra, diru-laguntzei buruzkoa.

c) Lege hori garatzen duen erregelamendua.

d) Erregimen lokala eta prozedura administratiboa arautzen duten xedapenak.

e) Aplikakizun diren gainerako guztiak.

*Amaierako hirugarren xedapena. Indarrean sartzea.*

Oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

B) El importe global de la dotación económica destinada a esta convocatoria será con carácter anual y distribuido de la siguiente manera:

Presupuesto 2018: 200.000,00 euros, con el siguiente desglose:

\* Expedientes con ejecución final de obra en el año 2017: 100.000 euros.

\* Expedientes con ejecución final de obra en el año 2018: 100.000 euros.

*Disposición transitoria cuarta. Límite máximo de ayuda económica por actuación.*

La cuantía máxima de subvención para estos dos ejercicios será la siguiente:

A) Ascensores: La cuantía máxima por ascensor, no podrá ser superior a 10.818,00 €.

B) Rampas o similares: La cuantía máxima por rampas y similares, no podrá ser superior a 1.803 €.

C) Otras actuaciones: En el resto, la cuantía máxima alcanzaría los 3.606,00 €.

*Disposición derogatoria.*

Quedan derogadas las siguientes disposiciones:

a) Ordenanza reguladora de las ayudas económicas para la instalación de ascensores en inmuebles residenciales en el término municipal de Lasarte-Oria, aprobada por el Pleno de este Ayuntamiento, en sesión extraordinaria, celebrada el día 12 de julio de 2007 y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 147, de 26 de julio del mismo año.

b) Todas las normas y disposiciones municipales del mismo rango en lo que contradigan o se opongan a lo dispuesto en las presentes bases.

*Disposición final. Primera.*

Sin perjuicio de la obligación de aprobar y publicar, en su caso, las correspondientes convocatorias anuales, las presentes bases específicas seguirán en vigor en tanto en cuanto no se procede a su modificación por el órgano competente.

*Disposición final. Segunda.*

En todo lo no previsto en estas bases será de aplicación:

a) Ordenanza reguladora de la Concesión de Subvenciones aprobadas por el Pleno de la Corporación (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 75, de 20 de abril de 2017).

b) Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

c) Reglamento que desarrolla dicha ley.

d) Disposiciones reguladoras del régimen local y del procedimiento administrativo.

e) Todas aquellas otras que sean de aplicación.

*Disposición final tercera. Entrada en vigor.*

Las presentes bases entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.



**LASARTE-ORIA**  
UDALA-AYUNTAMIENTO

SARRERA zk. ....  
SARRERA-DATA .....

Pasa bedi agiri hau tramitatua izateko \_\_\_\_\_ Departamentura

IDAZKARI NAGUSIAK

**I. ERANSKINA – ANEXO I**

**DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA**  
**SOLICITUD DE SUBVENCIÓN**

**(1) INTERESATUAREN DATUAK • DATOS DE LA PERSONA INTERESADA**

NAN/IFZ/AIZ/IFKren zk. Nº DNI/NIF/NIE/CIF	IZEN-DEITURAK EDO IZEN SOZIALA NOMBRE Y APELLIDOS O RAZÓN SOCIAL		
HELBIDEA DIRECCIÓN	P.K. C.P.	UDALERRIA MUNICIPIO	
PROBINTZIA PROVINCIA	TELEFONO(A)(K) TELÉFONO(S)	POSTA ELEKTRONIKOA E-MAIL	

**(2) ORDEZKARIAREN DATUAK (kasua hala bada) • DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE (en su caso)**

NAN/IFZ/AIZ/IFKren zk. Nº DNI/NIF/NIE/CIF	IZEN-DEITURAK EDO IZEN SOZIALA NOMBRE Y APELLIDOS O RAZÓN SOCIAL		
HELBIDEA DIRECCIÓN	P.K. C.P.	UDALERRIA MUNICIPIO	
PROBINTZIA PROVINCIA	TELEFONO(A)(K) TELÉFONO(S)	POSTA ELEKTRONIKOA E-MAIL	

**(3) DIRU-LAGUNTZARAKO DATUAK • DATOS PARA LA SUBVENCIÓN**

ESKATZEN DUEN DIRU-LAGUNTZAREN IZENA: TÍTULO DE LA SUBVENCIÓN QUE SOLICITA:	
DEIALDIAREN DATA (GAO): FECHA CONVOCATORIA (BOG):	DEPARTAMENTU DEIALDIGILEA: DEPARTAMENTO CONVOCANTE:
DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA: FINALIDAD DE LA SUBVENCIÓN:	

**(4) ELKARTEA BADA, ENTITATEAREN ERREGISTRO zk. (bete dagokiona) • SI ES UNA ASOCIACIÓN, Nº DE REGISTRO DE LA ENTIDAD (cumplimentar lo que proceda)**

ELKARTEEN UDAL-ERREGISTROKO zk.: Nº REGISTRO DE ASOCIACIONES MUNICIPAL:	EUSKADIKO ELKARTE/FUNDAZIOEN ERREGISTROKO zk./BESTE BATZUETAKOAK: Nº REGISTRO DE ASOCIACIONES /FUNDACIONES DE LA C.A.P.V./OTROS:
--	---

**(5) ERANTZUKIZUNEZKO DEKLARAZIOA • DECLARACIÓN RESPONSABLE**

Ordezkatzen duen entitatea edo pertsona ez dela aurkitzen onuradunaren izaera eskuratzeko eragozten duen ezein zirkunstantzian, Lasarte-Oriako Udalaren Diru-Laguntzak Emateko Ordenantza Arautzailearen 9. artikuluko 2 eta 3. atalean xedatutakoaren arabera.

Ordezkatzen duen entitatea edo pertsona egunean dagoela Segurantzaren Sozialarekiko eta Zergen Administrazioarekiko betebeharretan, eta ez dela Lasarte-Oriako Udalaren zordun.

Markatu zein dagokion hurrengo hauetatik:

- Ez diola xede bererako beste laguntzarik edo diru-laguntzarik eskatu beste ezein administrazio publikori edo entitate publiko nahiz pribaturi.
- Oraingo eskaeraren xede bererako beste laguntza bat eskuratu edo eskatu duelarik, hori eskaera honi erantsitako dokumentazioan zehazten duela.

Que la entidad o persona a la que representa no incurre en ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de beneficiario/a de acuerdo con el artículo 9 apartado 2 y 3 de la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

Que la entidad o persona a la que representa se encuentra al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social y con la Administración tributaria y que no es deudora del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

Marque la que proceda de las siguientes:

- Que no ha solicitado ninguna otra subvención o ayuda para el mismo fin a otras Administraciones Públicas o Entidades públicas o privadas.
- Que habiendo obtenido o solicitado otra ayuda para el mismo fin que la que ahora solicita, se especifica en la documentación adjunta a esta solicitud.

**(6) DATUAK ESKATZEKO BAIMENA • AUTORIZACIÓN SOLICITUD DE DATOS**

Lasarte-Oriako Udalarai baimena ematen diot Lasarte-Oriako Udalaren beraren artxibo munizipalean egiaztatu dezan eta erakunde eskumundetatik behar diren agiri guztiak eska ditzan, eskaera honi dagokion diru-laguntzaren onuradun izateko beharrezkoak diren

Lasarte-Oriako Udala baimendua geratzen da dokumentu honetan jasotako datu pertsonalei tratamendu automatizatua emateko. Udala Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzera konprometitzen da. Interesatuek datuak eskuratzeko, kantzeltatzeko, zuzentzeko eta oposatzeko eskubideak baliatu ahaliko dituzte Lasarte-Oriako Udalaren aurrean.

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria queda autorizado al tratamiento automatizado de los datos personales contenidos en este documento. El Ayuntamiento se compromete al cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal. Los interesados podrán ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición ante el Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

**baldintza guztiak betetzen ditudala egiaztatzeko eta, hala badagokio, eguneratzeko. Interesatuek oposizioko eskubideak egikaritu ahalko dituzte Lasarte-Oriako Udalaren aurrean, horretarako idatzia aurkeztuta.**

Autorizo al Ayuntamiento de Lasarte-Oria a verificar en los archivos municipales del propio Ayuntamiento de Lasarte-Oria y a solicitar a los Organismos competentes cuanta documentación sea necesaria para verificar y actualizar, en su caso, el cumplimiento de todas las condiciones para ser beneficiario de la subvención a la que se refiere la presente solicitud. Los interesados podrán ejercer los derechos de oposición ante el Ayuntamiento de Lasarte-Oria presentando escrito al efecto.

**(7) BANKUKO DATUAK • DATOS BANCARIOS**

IBAN:

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

\* Kontuaren titularra onuradunak izan beharko du. / El titular de la cuenta deberá ser el beneficiario/a.

**(8) AURKEZTEN DUEN DOKUMENTAZIOA • DOCUMENTACIÓN QUE APORTA**

<input type="checkbox"/> PROIEKTUAREN MEMORIA MEMORIA DEL PROYECTO	<input type="checkbox"/> GASTU ETA SARREREN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE LOS GASTOS E INGRESOS
<input type="checkbox"/> PROIEKTUA FINANTZATZEKO BESTE ITURRI BATZUEN AKREDITAZIOA ADIERAZITAKOAK ACREDITACIÓN DE OTRAS FUENTES DE FINANCIACIÓN DEL PROYECTO	<input type="checkbox"/> ZIOA BERARIAZKO OINARRIETAN LA INDICADA EN LAS BASES ESPECÍFICAS
<input type="checkbox"/> BESTE BATZUK _____ OTROS	

**(9) HARREMANETARAKO HIZKUNTZA • IDIOMA DE RELACIÓN**

Hautatu zein hizkuntzatan jaso nahi duzun eskaera honi lotutako dokumentazioa, dagokion laukitxoak markatuz / Marque la casilla correspondiente al idioma en el que desea recibir la documentación relacionada con esta solicitud

<input type="checkbox"/> EUSKARAZ	<input type="checkbox"/> BI HIZKUNTZETAN / EN BILINGÜE
-----------------------------------	--

**(10) NOTIFIKAZIOA EGITEA • PRÁCTICA DE LA NOTIFICACIÓN**

Adierazi zein modutan jaso nahi duzun egintza administratiboen notifikazioa / Indique la forma en la que desea recibir la notificación de los actos administrativos

<input type="checkbox"/> BALIABIDE ELEKTRONIKOEN BITARTEZ A TRAVÉS DE MEDIOS ELECTRÓNICOS	<input type="checkbox"/> ADIERAZITAKO HELPIDERA PAPEREAN BIDLITA EN PAPEL AL DOMICILIO INDICADO
--	--

\* **Ikus inprimaki hau betetzeko jarraibideak eskaera honi erantsitako orrian.**  
\* Ver instrucciones para cumplimentar este impreso en hoja adjunta a esta solicitud.

**Sinadura / Firma:**

En \_\_\_\_\_ n, \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_\_ (e)an  
a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_

**Lasarte-Oriako Udaleko alkate-lehendakari jn./and. / Sr./Sra.** Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Lasarte-Oria



## INPRIMAKI HAU BETETZEKO ARGIBIDEAK \* INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR ESTE IMPRESO

- (1) Atal hau interesatuaren datuekin beteko da. Interesatuak ordezkararen bidez jardun ahalko du. Kasu horretan, lehenbiziko eta bigarren atalak bete beharko ditu.
- (2) Ordezkarari buruzko datuak halakorik izendatu denean bakarrik beteko dira. Ordezkaritza zuzenbidean balio duen eta sinesgarritasunez jasota utziko duen edozein bide baliatuz akreditatu beharko da; edo, bestela, interesatua bera agertuta ordezkaria zein den esanez.
- (3) Atal honetan adierazi beharko dituzu diru-laguntzarako beharrezkoak diren datuak, hau da, eskatzen duzun diru-laguntzaren izena, deialdiaren data (GAOn noiz argitaratua), departamentu deialdigilearen izena eta eskatzen duzun diru-laguntzaren xedea.
- (4) Entitatearen erregistro-datuak adierazi beharko dituzu (elkartea den kasuan bakarrik); dagokionaren arabera, elkartearen erregistro munizipaleko zenbakia, EAEko elkartearen/fundazioaren erregistroko zenbakia edo beste batzuetakoa.
- (5) Idatzi hau sinatuta, zeure gain hartzen duzu atal honetan adierazten den erantzukizuneko deklarazioa.
- (6) Idatzi hau sinatuta, administrazio honi baimena ematen diozu eskabide hau tramitzeko beharrezko datuak administrazio honetatik eta beste entitate publiko edo pribatuetatik lor ditzan. Interesatuak oposizioko eskubideak egikaritu ahalko dituzte Lasarte-Oriako Udalaren aurrean, horretarako idatzia aurkeztuta.
- (7) Atal honetan adierazi beharko duzu onuradunaren kontuaren IBAN zenbakia.
- (8) Atal honetan, inprimakiarekin batera zein agiri aurkeztu dituzun markatu eta/edo adierazi beharko duzu.
- (9) Administrazioarekiko harremanak zein hizkuntzatan nahi dituzun hautatu beharko duzu.
- (10) Udalaren komunikazioak/notifikazioak jasotzeko zein aukera nahi duzun markatu beharko duzu.

Edozein kasutan ere, inprimakiak sinatuta joan beharko du, dela interesatuak, dela ordezkariek, kasua hala bada.

- (1) Este apartado se cumplimentará con los datos de la persona interesada. La persona interesada podrá actuar por medio de representante, en cuyo caso deberá rellenar los apartados primero y segundo.
- (2) Los datos relativos a la persona representante sólo se cumplimentarán cuando se haya designado. La representación deberá acreditarse por cualquier medio válido en derecho que deje constancia fidedigna, o mediante declaración en comparecencia personal del interesado.
- (3) En este apartado deberá indicar los datos necesarios para la subvención, siendo el título de la subvención que solicita, la fecha de la convocatoria (publicación en BOG), el nombre del Departamento convocante y la finalidad de la subvención que solicita.
- (4) Deberá indicar los datos de registro de la entidad (únicamente si es una asociación); según proceda, el número de registro de asociaciones municipal, el número de registro de asociaciones/fundaciones de la CAPV u otros.
- (5) Con la firma del presente escrito, asume la declaración responsable que se indica en este apartado.
- (6) Con la firma del presente escrito da autorización a esta Administración para recabar los datos necesarios de ésta y de otras entidades públicas o privadas para la tramitación de esta solicitud. Los interesados podrán ejercer los derechos de oposición ante el Ayuntamiento de Lasarte-Oria presentando escrito al efecto.
- (7) En este apartado deberá indicar el nº de iban de la cuenta del beneficiario/a.
- (8) En este apartado deberá marcar y/o indicar los documentos que se aportan junto al impreso.
- (9) Deberá elegir el idioma de relación con la Administración.
- (10) Deberá marcar la opción que desee para recibir las comunicaciones/notificaciones municipales.

En todo caso, el impreso deberá ir firmado por la persona interesada o, en su caso, por la persona representante.

**Baldin eta interesatua Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Komunaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan aurreikusitako subjektuetako bat bada (elkarreak, enpresak, etab.), obligatua dago baliabide elektronikoen bidez aurkeztera, udalaren webgunearen bitartez ([www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)). Gainerako subjektuek modu berean edo norbera agertuta aurkeztu ahalko dute, behin bete eta sinatutakoan, Lasarte-Oriako Udaleko Sarreraren Erregistro Orokorrean (Okendo Plaza 1), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era bitartean, edota urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako formen bidez.**

Inprimaki hau Udalaren [www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus) webgunetik eskura daiteke.

En el caso de que el interesado fuera uno de los sujetos contemplados en el artículo 14.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (asociaciones, empresas, etc.), está obligado a presentarlo por medios electrónicos a través de la web municipal ([www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)). Los demás sujetos podrán presentarlo de la misma manera o presencialmente, una vez cumplimentado y firmado, en el Registro General de Entrada del Ayuntamiento de Lasarte-Oria (Okendo Plaza nº 1) de lunes a viernes en horario de 9:00 a 13:30 horas o mediante las demás formas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

Este impreso se encuentra disponible en la web municipal [www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)

### ARAUDI ERREGULATZAILEA • NORMATIVA REGULADORA

- Dagokion diru-laguntzaren oinarri espezifikokoak
- Diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailea
- Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa

- Bases específicas de la subvención que corresponda
- Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones
- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones

### TRAMITAZIOA • TRAMITACIÓN

**Unitate arduraduna: diru-laguntza sustatzen duen arloaren arabera**

Unidad responsable: según el Área que promueva la subvención

**Kultura, Hezkuntza, Gazteria eta Jaiak, Geltoki Kalea 18. ☎ 943 376181 ☐✉ [kultura@lasarte-oria.eus](mailto:kultura@lasarte-oria.eus)**

Cultura, Educación, Juventud y Festejos, Geltoki Kalea nº 18

**Kirolak, Bekokale Bidea 3. ☎ 943 376182 ☐✉ [kirolak@lasarte-oria.eus](mailto:kirolak@lasarte-oria.eus)**

Deportes, Bekokale Bidea nº 3

**Zerbitzu Sozialak, Immigrazioa, Kooperazioa eta Emakumea. Donostia Etorbidea 3. ☎ 943 376179 ☐✉ [gizartez@lasarte-oria.eus](mailto:gizartez@lasarte-oria.eus)**

Servicios Sociales, Inmigración, Cooperación y Mujer. Donostia Etorbidea nº 3.

**Sozioekonomia.. Donostia Etorbidea 3. ☎ 943 376179 ☐✉ [enplegu@lasarte-oria.eus](mailto:enplegu@lasarte-oria.eus)**

Socioeconomía. Donostia Etorbidea nº 3.

**Obra eta Hirigintza. Okendo Plaza 1 – 4. Solairua . ☎ 943 376189 ☐✉ [hirigintza@lasarte-oria.eus](mailto:hirigintza@lasarte-oria.eus)**

Obras y Urbanismo. Okendo Plaza nº 1 – 4ª planta